


Igartubeiti Baserri Museoa

**BASERRITARREN  
EKIMENAK  
KORONABIRUSAREN  
AURREAN**



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

Egoera berezi honen aurrean Euskal Herriko bazter ezberdinetako baserritarrak irtenbide eta ekimen ezberdinak bilatzen ari dira beraien lanak aurrera atera eta herritarrei bertako elikagaiak eskaintzen jarraitzeko. Horregatik, Igartubeiti Baserri Museotik baserritarren lanari aitortza egin nahi diogu, aldiro aldiro gure webgunean beraien ekimenen berri emanez.

Osasun larrialdi honek mahai gainean jarri du gure egunerokoan nekazalgoak duen garrantzia.

Leiho birtual honen bitartez, aldizka, beraien ekimen, egitasmoen berri eman nahi izan duten Goierri eta Urola Garaiko baserritarrekin eta sektoreko bitartekariekin izandako solasaldiak argitaratuko ditugu.

- Leire Arandia



Leire Arandia, Gastronomiaren eta elikaduraren arteko lotura estua ezagutzeko interpretazio guneko, Ordiziako D'elikatuz-eko, zuzendaria da. Ordiziako azoka sustatzea, dinamizatzea da bere eginkizunetako bat. Asteazkenero bertako produktuak saltzen dituen 500 urte baino gehiagoko azoka da Ordiziakoa. Leire, bitartekari gisa, lehen sektoretik bizi direnentzat azoka erakargarria eta errentagarria izan dadin lanean dihardu, baita erosleak erakartzen ere.

2020ko apirilak 21ean, konfinamenduaren seigarren astean izandako solasaldia.

**Iban:** Kaixo Leire.

**Leire:** Kaixo egun on.

**Iban:** Zer moduz zabilzate ba egun hauetan?

**Leire:** Beno ba, egoera luze doa eta moldatzen pixkanaka pixkanaka.

**Iban:** Bai. Beharko.

**Leire:** Hori da.

**Iban:** Zuek Delikatuzetik badaramatzazue urte batzuk Ordiziako Azokaren inguruan lanean. Azaldu iezaguzu zertan datzan.

**Leire:** Delikatuz 2005. urtean sortu zen zentro bat da, eta bere izatearen arrazoi nagusia Ordiziko azoka da. Alde batetik aprobeztatu egin zen bertan dugun eraikin hau bi ataletan banatzeko. Alde batetik Goierri eta Ordizira datozen bisitariei arrera egiteko gunea legoke, hor daukagu bai Ordizia eta eskualdeko Turismo Bulegoa eta lehenengo solarian eskualdea ezagutzera datozenen arrera gunea. Eta beste atala elikadura eta gastronomiari lotutakoa litzateke. Beti ere gure azokan oinarrituz eta

Igartubeiti Baserri Museoa. Baserritarren ekimenak koronabirusaren aurrean egitasmoa. 2020

bertako produktuak sustatuz. Bai ikusten zen, orain bezalatsu, garai horretan ere bazegoela kezka bat elikadura osasuntsu baten ingurukoa eta orduan bi gaiak uztartu genituen, bai elikadura osasuntsuarena eta bertako produktuen sustapena.

**Iban:** Asmo horretan Ordiziako Azokak garrantzia berezia du ezta?

**Leire:** Bai, guretzako ardatza da. Izan ere Ordizia beti izan da baserritar eta hiriaren edo herritarren arteko nolabaiteko lotura egiten duena. Ez bakarrik salmenta puntua delako baizik eta baita ere bertan plazaratzen eta elkartzen direlako baserritarrak eta herritarrek edo hiritarrak. Eta azkenean guretzako hori da gakoa, eta hortik abiatuz lantzen dugu gure jarduera guztia.

**Iban:** Egun hauek nola eragin diote azokari?

**Leire:** Ba bete-betean eragin dio. Esan behar da, guk ez diogula utzi azoka egiteari, baina noski honi ezin zaio Ordiziako Azoka deitu, momentu honetan egiten ari garenari alegia. Hasiera hasieratik egin genuena baldintza edo segurtasun neurriak hartzea izan zen, baldintza batzuk markatu eta lehentasuna eman genien bertako produktua lantzen duten ekoizle horiei. Gure azoka beste ekoizle edo saltzaile askok egiten dute baina ikusten genuena zen alde batetik bertako ekoizleen produktuei irteera bat eman behar geniela zeren beste batzuek agian badute beste salmenta punturen bat. Eta gero baita ere ba herritarrei aukera ematea produktu horietara heltzeko. Eta egin duguna izan da gutxi batzuekin hasi baldintza oso gogorrekin: segurtasun aldetik, distantzia aldetik, saltzaileek ere nolabait segurtasun berme guztiak hartu dituzte... Eta ba pixkanaka pixkanaka egoerara egokitzen goaz eta geroz eta neurri gehiago hartzen eta aldi berean saltzaile kopurua handitzen saiatu gara aukera hori eman ahal izateko. Nahiz eta oraindik ere oso urrun dagoen benetako Ordiziako azokatik.

**Iban:** Beraz azoka egoera berri honetara egokitzen ari zarete?

**Leire:** Bai hori da. Azkenean tokia ere aldatu egin dugu. Berez gure azoka Ordiziako plaza nagusian ospatzen da historikoki. Eta ikusiz ba kale nagusian ere bestelako elikadura dendak badaudela eta jende fluxua nahiko handia zenez, ezin genuen ziurtatu azoka egun batean berme guztiak izango genituela eta orduan frontoira eramanez genuen azoka. Eta orain frontoi barruan ekoizleak ditugu eta hurrengo azokatik aurrera bitartekari batzuekin ere hasiko gara, txandakatuz, frontoi txikian ere beraien produktuak saldu ahal izateko. Eta horrela, ahal dugun neurrian normaltasun batetara bueltatu ahal izateko.

**Iban:** Aldi berean, azokara gerturatu ezin diren baserritar eta erosleentzako ere beste ekimen bat ere jarri duzue abian ezta?

**Leire:** Bai hori da. Egin duguna izan da adinagatik edo bestela etorri ezin zuten ekoizleei telefonoz eskaera egiteko aukera jarri. Orduan komunikazio esfortzu bat egin dugu horrela jendeak telefonoz egin dezake eskaera eta gero aukera dute asteazken goizean beraien eskariak jasotzeko. Orain gainera ez soilik azokara etortzen ez direnei, bertan daudenei ere aurrez eskaera egiteko aukera emanez. Eta azkenean, jendeak oso oso ondo erantzun dio azokari baina ilarak ere sortzen dira eta hori ekiditeko neurri bezala aukera hau, ekimen hau, ere atera da edota lanean hasi den horrek erosketa ezin duenez egin ba bertako produktuak erosten jarraitzeko aukera emateko.

**Iban:** Amaitzeko. Nola ikusten duzu azoka guzti honen ondoren eta aurrera begira?

**Leire:** Nik uste txarretik ere ona atera behar dela eta aukerak ere ikusi behar ditugula. Nik ikusten dudana da, egoera honek azoken aldeko elkartasun bat sortu duela. Jendea baserritarren lana baloratzen ari da, oso ondo erantzun duelako jendeak. Edota ikusi dugu, adineko jendeak kalera ateratzeko arrisku handiagoa duenez, bestelako jende bat erakarri dugula azokara. Jende gaztea, beste sensibilitate bat dutenak eta ikusi da ba horiei azokako produktuak erosteko aukera ematen bazaie ba erantzuten dutela eta hor bezero talde garrantzitsu bat irabazi dugula. Eta gero ba, azoka bera. Garbi dagoena da baldintza zorrotzak bete beharko direla etorkizunean eta horrek ere ba eramango gaitu birpentsatzera ba postuak nola kokatu behar ditugun, zein distantziatara... Horri bueltatxo bat eman beharko zaio. Baino beno, nik aukerak ikusten ditut. Optimista izan beharko gara eta horri eutsi beharko diogu.

**Iban:** Mila esker gurekin hitz egiteko tartetxoa hartu duzulako eta ondo izan.

**Leire:** Mila esker zuei gurekin gogoratzeagatik eta ea dena ahalik eta azkarren pasatzen den.